

## V. PAZKO IGANDEA (B)

### Otoitza

Jainko Jauna,  
Zuk gaituzu salbatzen eta zeure seme-alabatzat hartzen;  
ikus begi onez hain maite dituzun zeure seme-alabak;  
eta Kristorengan sinesten dugunoi  
emaguzu egiazko askatasuna eta betiko bizia.  
Zure Seme Jesu Kristo.

I. IRAKURGAIA: Ap Eg 9, 26-31

*Saulok, nola bidean Jauna ikusi zuen adierazi zien.*

Apostoluen Eginetatik

Egun haietan, Saulo, Jerusalem iritsi zenean, ikasleekin elkartu nahian zebilen. Denek, ordea, beldurra zioten; ez baitzuten uste ikasle zenik.

Orduan Bernabek berekin hartu eta apostoluengana eraman zuen. Saulok, nola bidean Jauna ikusi zuen adierazi zien, nola Jaunak hitzegin zion, eta bera Damaskon Jesusen izenaz nola mintzatu zen jendearen aurrean. Saulo haiekin zebilen, Jerusalem sartu eta atera, Jaunaren izenaz jendearen aurrean mintzatu. Grezi hizkuntzako judutarrekin ere hitzegiten zuen eta eztabaidak izan zituen. Baina haiek, hura nola hilko zebiltzan. Senideek, hori jakitean, Zesareara eraman zuten eta handik Tarsora bidali.

Eliza bakean bizi zen Judea osoan, Galilean eta Samarian; eraikitzen zihoan, Jaunari gero eta leialago jarraituz, eta gero eta haundiagoa egiten ari zen, Espiritu Santuak eraginda.

ERANTZUN SALMOA: Sal 21, 26b-27. 28. 30abcd. 30e-32

**R/. Zugana nire goreskizuna, Jauna,  
batzarre nagusian.**

Edota: **Aleluia.**

Beteko dut zin-hitza beldur diotenen aurrean,  
behartsuek asetzeraino jango dute,  
billa dabilzkionek Jauna dute goreskiko,  
bizi bitez haien bihotzak betiko. R/.

Oroituko dira eta Jaunagana itzuliko  
lurreko bazter guztiak;  
Haren aurrean ahuspeztuko dira  
atzerrietako sendi guztiak. R/.

Hura bakarra jauretsiko dute  
lurpean lo dauden guztiek;

Haren aurrean makurtuko dira  
hautsetara erortzen direnak. R/.

Nire arima, ordea, Harentzat biziko da,  
Haren morroi izango nire hazia.  
Jaunaz mintzatuko zaie hurrengo gizaldiei,  
Haren zuzentasuna iragarriko dio  
sortzen dagoen herriari: «Hauek ditu Jaunak egin.» R/.

II. IRAKURGAIA: 1 Jn 3, 18-24

*Hau da Haren agindua:  
sinets dezagula eta elkar maita.*

San Joan Apostoluaren epistolatik

Ene seme-alabok,  
ez dezagula hitzez eta ahoz maita,  
egiaz eta egitez baizik.  
Horretan ezagutuko dugu egiarengandik garela,  
eta lasaituko ditugu gure bihotzak  
Jainkoaren aurrean;  
gure bihotzak errudun garela esaten badigu ere,  
gure bihotza baino haundiagoa da Jainkoa,  
eta guztia dakiena.  
Senide maiteok, bihotzak ez badigu esaten  
errudun garela,  
uste osoa dugu Jainkoarengan.  
Eska ahala guztia hartzen dugu Jainkoarengandik,  
Haren aginduak betetzen baititugu  
eta Hari atsegin zaiona egiten.  
Eta hau da Haren agindua:  
Haren Seme Jesu Kristoren izenean sinets dezagula  
eta elkar maita,  
Berak agindu zigun bezala.  
Haren aginduak betetzen dituen  
Jainkoarekin dago eta Jainkoa harekin;  
honetatik ezagutzen dugu gurekin dagoela;  
eman digun Espiritutik.

EBANJELIOA: Jn 15, 1-8

**Aleluia:** Jn 15, 4. 5b

R/. Aleluia.

V/. Zaudete Niregan eta Ni zuengan –dio Jaunak–;  
Niregan dagoenak fruitu asko ematen du. R/.

*Niregan dagoenak, eta Ni harengan,*

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik

Aldi hartan, Jesusek honela esan zien bere ikasleei: «Ni naiz egiazko mahatsondoa, eta nire Aita da mahastilaria. Niregan fruiturik ematen ez duen aihena, moztu egiten du; eta fruitu ematen duen guztia kimatu, fruitu gehiago eman dezan. Zuek, bai, garbi zaudete, Nik adierazi dizuedan hitzari esker. Zaudete Niregan eta Ni zuengan. Aihenak ez dezake berez fruiturik eman, mahatsondoan ez badago; ezta zuek ere, Niregan ez bazaudete.

Ni naiz mahatsondoa, eta zuek aihenak. Niregan dagoenak, eta Ni harengan, fruitu asko ematen du; Ni gabe ezin baituzue ezer egin. Niregan ez dagoena, aihena bezala kanpora botatzen dute eta ihartu egiten da; gero bildu eta sutara botatzen dituzte, eta erre egiten dira.

Niregan bazaudete eta nire hitzak zuengan badaude, eskatu nahi duzuen guztia, eta izango duzue. Honek goresten du nire Aita: zuek fruitu ugariak emateak; horrela izango zarete nire ikasle».

### **Oparigaien gainekoa**

Jainko Jauna,  
opari honetako harreman miragarriei esker,  
zeure jainkotasunean parte ematen diguzu;  
egizu, sinesten dugun egia egintzetan aitor dezagula.  
Jesu Kristo.

Prefazioa: Pazkoaldikoa.

### **Jaunartze ondorengoa**

Zaude beti, Jauna, zeure herriarekin;  
eta sakramentu hauen graziaz bete dituzunei  
emaiezu, beren izate zaharra utzirik,  
jainkozko bizi berriaren erara bizitzea.  
Jesu Kristo.